

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Charlie Kaufman gizagaixoa

Adaptation.

Zuzendaria: Spike Jonze. Aktoreak: Nicholas Cage, Meryl Streep. Gidoia: Charlie Kaufman.

Urtea: 2002.
114 minutu.

GIZAGAIXOIA CHARLIE KAUFMAN, gizona dago, buru-soil geratzen ari da, urteak joaten ari zaizkio gidoigintzan lan arrakastatsurik egin gabe, *Orkidea lapurra* liburua zinemarako egokitzeko eskatu diote, eta burua lehertu beharrean ari den arren, ez ateratzen nola. Hori gutxi balitz: Charlie ez da moldatzen emakumeekin, soziopata samarra da. Oraindik nahikoa ez? Anaia bikia etxean sartuko zaio, gidoi bat idazten hasiko da eta hara, bukatu du, ondo pagatuko diote. Eta emakumeekin ere, Charlie gizagaixoa baino hobeto moldatzen da.

Adaptation galtzaile baten istorioa da. Bere burua etengabe zalantzan jartzen duen gizon heldu patetiko batena. Baita hori baino gehiago ere: sorkuntzaren —ez dut hitza sobera maite, baina...— gaineko gogoeta, istorio bat eraikitzeke orduan izaten diren buruhausteen erretratu tarteka exageratu samarra, eta momentu batetik aurrera irrigarria.

Ezinak jota, Kaufman (Nicholas Cage) egokitzen ari den liburuaren egilearekin, Susan Orlean-ekin (Meryl Streep) obsesionatzen hasiko da. Eta anaia gomendioei jarraituz haren eguneroko bizimodua espiatzen hasiko da. Momentu horretatik aurrera, filmak thriller baten tankera hartzen du eta ez dira faltako droga trafikoa, pornografia, hilketak...

Eta itxoin, hori lehen buelta baino ez baita. Begiratu fitxa teknikoari. Zuzendaria: Spike Jonze. Akto-

reak: Nicholas Cage, Meryl Streep. Gidoia: Charlie Kaufman. Bai: gidoilariak bere burua bihurtu du protagonista. Eta horretaz jabeturik, pentsatzen hasten zara ariketa gogorra izan behar dela norberaz hain erretratu gupidagabea egitea. Zeure porrot profesional, sentimental, sozialak pantaila handira eramatea.

Baina *omnis homo mendax*, eta gidoilariak zer esanik ez. Dena da beloa, maskara, mozorroa. Charlie Kaufman, benetako Charlie Kaufman, arrakasta handiko gidoilaria baita Wikipedian irakurtzen dugunez. Oscar saria irabazi zuen 2004ko *Eternal Sunshine of the Spotless Mind* filmarekin. Gizon argala, buruan kalpar osasuntsua. Zerikusirik ez filmeko Aginako zero horrekin. Anaia bikirik ere ez du, ederra ziria sartu didana. Baina, pentsatzen jarrita, inori interesatzen al zaio benetako Kaufmanen bizimodua? ■



Charlie eta Donald Kaufman, filmeko eszena batean.



Dive Tarpoon urpekaritza




Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpoon@euskalnet.net
www.divetarpoon.com